



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

5/2021 INSTRUKZIOA (TLB-5 / E-4)

GAIA: 8/2016 Instrukzioko (EMS) eranskin hauek aldatzea: VII. eranskina "Prozedura" eta VIII eranskina "Eskabidea eta dokumentazioa".

Trafiko Zuzendaritzak izapidetzen dituen administrazio prozedura guztiek bete behar dituzte 39/2015 Legeak ezarritako betekizunak. Prozedurak egokitu behar dira; alde batetik, lege betebehar hori betetzeko; eta bestetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13 a) eta 53.1 artikuluen arabera, herritarrek eta interesdunek Administrazio Publikoekin, elektronikoki, Administrazioaren Irispide Puntu Elektronikoko Orokor baten bidez komunikatzeko duten eskubidea bermatzeko.

Horretarako, instrukzio honek konfigurazio euro-modularreko taldeetarako zirkulazio baimen bereziak elektronikoki izapidetzeko prozedura-irizpideak ezartzen ditu.

Hori dela eta, EMSen baimen bereziak arautzen dituen 2016ko uztailaren 14ko 8/2016 Instrukzioko eranskin hauek aldatzen dira: VII. eranskina "Prozedura" eta VIII. eranskina "Eskabidea eta dokumentazioa". Era berean, Instrukzio honi eranstean zaio 8/2018 Instrukzioaren bertsio kotsolidatua.

Instrukzio honek ondorioak izango ditu 2021eko apirilaren 23tik aurrera.

Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña

TRAFIKOKO ZUZENDARIA

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tef. 945 01 87 44 – Fax 945 01 87 50

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T2QGN-S57J

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA | 2021/04/22 08:59:59

VII. eranskina "Prozedura"

1.- Bulego izapidetzailea

- Baimen bereziak izapidetzeko eskumena baimen-eskabideko ibilbidea hasten den edo igarotzen den lurraldeko Lurralde Bulegoari dagokio.
- Eskabideak esleitzea.
 - ✓ Eskabideak bulego eskudunari esleitzeko, Tramitaguneko espediente-kodea erabiliko da eta EMS/LB/UU/BB formatua izango du:
 - EMS: Euro-modular identifikatzailea.
 - LB: Bulego izapidetzailearen lurralde-identifikatzailea.
 - UU: eskabidea aurkeztu den urteko azken bi digituak.
 - BB: Emandako berritzea zenbatgarrena den. Lehen aldiz eman bada, horren balioa zero izango da (00).

2.- Tasa sortzea.

Ordainketa-gutuna aterako da eskabidea, Tramitaguneren bidez, modu automatikoan aurkeztu ondoren eta izapidetu aurretik.

- Izapidetze elektronikoa: Tramitagunek sortu eta Nire Karpetara bidaliko du.
- Aurrez aurreko izapidetzean: Tramitagunek sortuko du eta bulego izapidetzaileak eskabidean adierazitako helbide elektronikora igorriko du.

Tasa ordaindu dela ofizioz, edo justifikantea aurkeztu delako, egiaztatu ondoren, izapidetzen jarraituko da.

3.- Datuak egiaztatzea.

- Baimena emateko ezarrita dauden betekizun guztiak betetzen diren begiratuko da.
- Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko da.
- Erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko dira eta eskabideko matrikulak Ibilgailuen Erregistroan alta emanda dauden begiratuko da.



- Zirkulazioaren bi noranzko dituzten galtzada bakarreko errepideak eskatzen badira, egiaztatuko da ea hori den eskabidean adierazitako ibilbide-hasierako eta –amaierako lekuetara sartzeko aukera bideragarri bakarra.

4.- Hutsak zuzentzeko izapidea.

Hutsen bat dagoela ikusten bada (datuetan eta eskabideko elementuetan, aurkeztutako dokumentazioan; proposatutako ibilbidearen ordeko ibilbide egoki bat dagoela, baldin eta ibilbideak erabili behar duen bide-motarako legez ezarritako betekizunak betetzen ez baditu), interesdunari errekerimendua egingo zaio antzemandako akatsak legez ezarritako epean zuzen ditzan.

Hutsak zuzentzeko errekerimenduari erantzun ondoren, izapidetzen jarraituko da. Bestela, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

5.- Txosten eskaera.

Eskatutako ibilbidea, osoa edo horren zati bat, bideetako titularrek konfigurazio euro-modularreko taldeetarako egindako txosten orokorretan sartuta ez badago, inplikaturik dauden bideen administrazio titular guztiei txostena eskatuko zaie. Hortaz, bidearen administrazio titularrari ez zaio banan-banako txostena eskatu behar, baldin eta bide-tarte horiek administrazio horrek dagoeneko eman duen txosten orokor batean sartuta badaude.

Behin txostena eskatuta, ez da onartuko eskatutako ibilbidearen datu bat bera ere aldatzea.

6.- Ebazpena ematea:

- Baimena.

Izapidea amaituta, eta txostenak (orokorrak edo banan-banakoak) aldekoak badira, zirkulazio baimen berezia emango da.

- Ukapena.

Baimena ukatuko da, baldin eta:

- a. Baimena emateko ezarrita dauden betekizunetako bat betetzen ez bada.



- b. Mugimendu-ibilgailuetako bat ere gai ez bada erabilera publikoko bideetatik zirkulatzeko edo eskatutako konfigurazioa osatzeko adina ez-mugimendu ibilgailu ez badaude.
 - c. Eskatutako ibilbide osoari edo horren zati bati buruzko aurkako txostena badago.
- Eskabidean atzera egiten duela deklaratzeari.

Interesdunak datuak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzuten ez badio edo behar bezala erantzuten ez badio, interesdunak atzera egin duela deklaratuko da.

7.- Jakinarazpenak

Tramitagunek beti Nire Karpeta igozko dituzten interesdunari jakinarazi beharreko izapideak, nahiz eta interesdunak paper bidezko izapideak aukeratu (39/2015 Legearen 41.6 art.).

Aurrez aurreko tramitazioan, gainera, posta bidezko jakinarazpenak Tramitaguneraren kasuan kasuko moduluaren bidez egingo dira. Tasari dagokion ordainketa-gutuna, ordea, posta elektronikoaren bidez igozko da.

8.- Baimenak aldatzea eta berritzea.

Interesdunak eskatuta eman den baimena ezin izango da aldatu.

Dagoeneko emanda dagoen baimen bat berritzeko, instrukzio honetan ezarritakoa beteko da eta berrituko den baimeneko datuak ezin izango dira aldatu. Eskabidean, interesdunak adierazi behar du zein baimen berritu nahi duen.

9.- Prozedura koordinatzea.

Trafiko Zuzendaritzako zerbitzu zentraleri dagokie konfigurazio euro-modularreko ibilgailu-taldeetarako baimen bereziak emateko prozedura zein horiekin lotutako gainerako izapideak koordinatzea. Horretarako, eginkizun hauek burutu behar ditu:

- Instrukzio hau eta bere eranskinak eguneratu eta aldatu, trafikoaren kudeaketarekin edo baimenak emateko prozedurarekin lotutako egoera berrietara egokitzeko
- Ibilbide-sareak sortu eta mantendu.

- Zerbitzu informatikoekin lankidetzan aritu.



VIII. eranskina "Eskabidea eta dokumentazioa"

1. Eskabidea:

Aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere, elektronikoa edo presentziala, erabili behar den eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan dago, eta hauen bidez sartzen da: www.trafikoa.eus edo <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>.

Aurrez aurre egin nahi bada, eskabidea beteta eta dokumentazioa Herritarrei Arreta Emateko Zuzenean Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

2. Eskabidearekin batera hainbat dokumentu aurkeztu behar dira.

Administrazioarekiko harremanetarako aukeratutako kanala edozein dela ere, aurkeztu beharreko dokumentazioa hau da:

- ✓ "Taldearen ziurtagiri teknikoa", salbu eta emandako baimena berritzeko eskatzen bada. Horrelakoetan, berritu nahi den espedientea zein den adierazi behar da, besterik ez.

Izapidetzeko kanal presentziala aukeratu badu, beste hauek ere aurkeztu behar ditu:

- ✓ Interesdunaren identifikazioa.
- ✓ Ordezkaritzaren egiaztatzea.



8/2016 JARRAIBIDEA¹ (6 - TLB/E-6)

DATA: 2016ko uztailaren 14koa

GAIA: Zirkulazio-baimen berezia konfigurazio euromodularreko multzoentzat eta zirkulazio-baldintzak.

I.- KONFIGURAZIO EUROMODULARRA

Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean IEO) IX. eranskina aldatzen duen abenduaren 18ko PRE/2788/2015 Aginduak (abenduaren 23ko 2822/1988 Errege Dekretuak onetsia) "konfigurazio euromodularren" (aurrerantzean EMS) definizioa gehitzen du eta horren zirkulazioa baimentzen du 60 tonako BGM-rekin eta 25,25 metroko gehieneko luzerarekin.

Aipatutako IX. eranskineko 1. ataleko 1.23 puntuan jasotako definizioaren arabera, *konfigurazio euromodularra* da 6 ardatz-lerro baino gehiago dituzten ibilgailuen multzoa. Horien moduluek, berezita, ez dituzte gainditzen eranskin horretan ezarritako (dagokion ibilgailu motarentzat) baimendutako gehieneko masak eta dimentsioetako mugak.

Hala, konfigurazio euromodularra honako hau da:

- a) honako huez osatutako ibilgailu multzo bat: "ibilgailu artikulatu bat gehi atoi bat" edo "errepide-tren bat gehi atoi bat".
- b) 6 ardatz baino gehiago duena
- c) konfigurazioko modulu bakoitzak ezin ditu gainditu IX. eranskineko masak, ez eta dimentsioak ere, ibilgailu mota bakoitzari dagokionez.

II.- ZIRKULAZIO-BAIMEN BEREZIA

IEOaren IX. eranskineko 6. atalak (aipatutako PRE/2788/2015 Aginduak gehitua) konfigurazio euromodularreko ibilgailu multzoaren zirkulazioa baimentzen du baldin eta trafikoko eskumena duen organoaren baimena jasotzen bada.

Zirkulazio-baimen berezi hori zirkulazio-baimen osagarrien ezberdina da. Izan ere, konfigurazio horrek abian ez ditu gainditzen legeak ezarritako gehieneko masak eta dimentsioak, ez eraikuntzari dagokionez, ez eta garraiatzen duten karga zatiezinari

¹ 5/2021 Instrukzioak finkatutako bertsioa (2021-04-23)



dagokionez ere.

Aipatutako 6. atalaren arabera, EMS ibilgailu multzoen zirkulazioa onartuko da bide-titularrak txosten loteslea eman eta gero, epe jakin baterako eta baimenean ezartzen diren baldintzapean. Karga ezin izango da izan ibilgailuaren planta-proiektzioa baino handiagoa. Ahal den guztietan, garraio horien ibilbidea autobide eta autobietan zehar joan behar da, edo "zirkulazio-norabide bakoitzerako galtzada berezituak" dituzten errepide arruntetan zehar.

PRE/2788/2015 Aginduaren aurreikuspena betetze aldera, eta EAEko bideen zirkulazioa zaintzeko organo arduraduna den aldetik, Trafiko Zuzendaritzak honako jarraibide hau eman du. Haren bitartez, EMSen zirkulazioa baimentzeko baldintzak eta beharrezkoak diren gainerako alderdiak ezartzen dira.

III.- BAIMENA EMATEKO BALDINTZAK

Baimen berezia eskatu ahal izango da , abian moduluen konfigurazio zehatz bat eta ibilbide zehatz bat dauzkan multzo euromodular baterako, irizpide hauei jarraikiz.

1.- INTERESDUNA

Garraio-enpresako baimenaren (garraio-txartel) titularra Garraioko Enpresen eta Jardueren Erregistroan (GEJE) inskribatua izango da.

2.- IBILGAILUAK (MODULUAK)

Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta egon eta IEOn baldintza guztiak bete beharko dituzte. Inola ere, ezin dituzte IEOn IX. eranskinean ibilgailu zurrun motordunentzako, atoienezako eta erdi-atoienezako adierazten diren gehieneko dimentsio- eta masa-mugak gainditu.

Aldi baterako matrikulatutako ibilgailuei ez zaie baimen berezirik emango, salbu eta "enpresa-ibilgailu gisa erabiltzeko Espainiatik at matrikulatutako ibilgailuentzako" behin-behineko baimena bada (*IEOn 44. artikulua*) eta helburua ezohiko ikerketa-proba edo -entsegu bada, eta ez karga erabilgarri bat eramatea.

Eskatutako multzoa osatzen duten ibilgailu guztiek I. eranskinean zehazten diren baldintza teknikoak bildu behar dituzte.

3.- ABIAN DAUKAN KONFIGURAZIOA

Eskaera abian daukan konfigurazio jakin baterako egingo da, ardatz eta ardatz-lerro kopuru bera daukan baterako, eta, posizio berarentzat, II. eranskinean jasotako datuekin bat egin beharko du.

6 ardatz-lerro baino gehiagoko konfigurazio euromodularrak bakarrik izango dira baliagarriak, eta inplikaturako ibilgailuen ezaugarriek behar bezala justifikatuta egon beharko dute beren fitxa teknikoetan. Ibilgailuen ezaugarri teknikoak ez dira banan-banan onartuko, dagokien fitxa teknikoetan inskribatuta agertzen ez badira. Hala ere, izan daitekeen ibilgailuen konfigurazio euromodular bakoitzarentzat aintzat hartu beharreko egoerarik kaltegarrienak edo murriztaileenak direla eta, eskatzaileak Multzoaren Ziurtagiri Teknikoa aurkeztu beharko du, IV. eranskinean ezarritako aurreikuspenei jarraikiz.

Multzoaren eta modulu indibidualen gehieneko masa eta dimentsioak izango dira IEOko IX. eranskinean multzo euromodularrentzat, ibilgailu motordunentzat, atoi entzat eta erdi-atoi entzat ezarritakoak.

4.- IBILBIDEAK

Eskatutako ibilbideak bideko titularraren aldeko txostena behar du, eta bakarrik izango dira lotesleak azpiegiturari kalteak saihesteko helburua duten preskripzio teknikoak.

Ibilbideak autobidez, autobiaz edo "zirkulazio-norabide bakoitzerako galtzada berezituak" dituen errepidez osatua egon behar du.

"Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarreko" bide arruntak ibilbidearen parte izango dira zamalanerako guneetara iristeko beste biderik ez dagoenean soilik.

Zamalanerako guneak industrialdeetan, zentro logistikoetan edo horien antzeko eremuetan egon beharko dira. Izan ere, EMSak elementu edo modulu estandarrez osatzen dira, eta, ondorioz, modulu batzuk erraztasunez uzteko eta hirigunetan edo iristeko zailak diren lekuetan konbinazio laburragoak erabiltzeko aukera dago.

IV.- BAIMEN BEREZIAREN INDARRALDIA

Zirkulazio-baimen bereziaren gehieneko indarraldia urtebetekoa izango da, ibilbidea igarotzen den bideetako titularren batek epe txikiagoa adierazi ez badu.

Baimena berritzea indarraldia bukatu baino 3 hil lehenago eskatu ahal izango da, daturik ez aldatzeko baldintzapean.



Bidaia kopuruak ez du mugarik izango, eta, baimenak barne hartzen dituen ibilgailuekin konfigurazio euromodularreko multzo bat baino gehiago era badaiteke, aldi berean zirkula daiteke.

V.- ESKAERA ETA DOKUMENTAZIOA

EMSrentzako baimen berezia Trafiko Zuzendaritzaren webgunean, www.trafikoa.eus, eskura daitekeen inprimakiaren bidez eskatuko da, eta VIII. eranskinean jasotako jarraibideei jarraikiz bete behar da.

Betetako eskaera VI.eranskinean zehaztutako dokumentazioarekin bat aurkeztuko da ZUZENEAN izeneko Herritarrarentzako Arreta Zerbitzuko leihatiletan bertan edo Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko Lurralde Bulegoetako egoitzan.

VI.- ZIRKULATZEKO BALDINTZAK

Zirkulatzeko baldintzak baimenean ezarri eta VI. eranskinean jasotzen dira, bideko titularraren txostenak azpiegitura zaintzeko beste preskripzio batzuk jasotzen ez baditu.

VII.- PROZEDURA

VII. eranskinean ezarritako izapideekin bat eginez, EAetik igarotzen den ibilbidearen hasierako tokiko Lurralde Bulegoak izango du baimen bereziak emateko edo ukatzeko eskumena.

VIII.- INDARRALDIA

Jarraibide honek sinatzen den hurrengo egunetik izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko uztailaren 14a

Garbiñe SÁEZ MOLINUEVO
TRAFIKOKO ZUZENDARIA

I. ERANSKINA: I ibilgailuentzako baldintzak

Multzoak eta haren moduluek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Ardatz eragileen esekidura-sistema pneumatikoa edo baliokidea.
- Angelu itsurako ispilu edo detektagailuak.
- Bidetik irteten ari zarela ohartzeko sistema edo bertan mantentzeko laguntza-sistema.
- Larrialdi-egoera bat automatikoki hautemateko gai diren sistemak, baita ibilgailuaren freno-sistema aktibatzeko ere, istripu bat saihestu edo arintzearren, abiadura gal dezan.
- Egonkortasuna kontrolatzeko sistema elektronikoa.
- Ibilgailu motordunak 40 tonako MGM-rentzat homologatuta egon behar du.
- Atoi gisa erabiliko den ibilgailu motorduna akoplamendu-gailu homologatu batekin ekipatu eta 60 tonako MGM bermatzen duten baldintzekin instalatu beharko da (55 zenbakiko ECE erregelamendua).
- Besteen artean doazen ibilgailu motordunek eta O4 kategoriako ibilgailuek atoian eramango dituzte beste batzuk. Beraz, atoian eramateko ekipamendu elektriko, pneumatiko eta mekaniko egokia izan beharko dute.

Multzoaren eta haren moduluen baldintza tekniko hauek hautazko horniduratzat joko dira:

- Angeluitsuak kentzeko eta ikuspegi osoko baliabideak, atzeko edo alboko kameren bidez.
- Zentralita hidrauliko edo pneumatikoa izatea, esekidura-sistema guztiek jasaten dituzten presioen emaitzak ematen dituena, multzoa osatzen duten ardatzetako bakoitzari dagokion masa baliokidea modu zuen eta zehatz batean ematen duena, irakurketa errazteko.

Multzo euromodular baten parte izan ahal izateko, ibilgailu mota hauetako bat izan beharko dute:

Eraikuntza-irizpidearen araberako sailkapena (IEOko II. eranskina)	Deskribapena	Homologazio-irizpidearen araberako kategoria
22	22 Kamioia BGM > 12.000 kg	K ₃
23	Atoi-kamioia	K ₂ edo K ₃
26	Furgoia BGM > 12.000 kg	K ₃
43	Atoi eta erdi-atoia BGM > 10.000	O4

65	Atoian eramateko zerbitzu-makina (1)	O4
----	--------------------------------------	----

- o (1) Berariaz salgaiak garraiatzeko erabiltzen direnak.
- o Eskaeran sar daitezkeen matrikula kopuruari dagokionez, ez da mugarik egongo, baina beti izan behar da eskatutako abiada-konfiguraziorako definitu diren motetako bat.
- o Akoplamendu-sistema gisa erabiltzen diren *dolly*ak multzoaren modulutzat hartuko dira.



II. ERANSKINA: Abian duen konfigurazioa

Eskaeran dauden ibilgailuek, multzoan abian posizio berean daudenean, bat egin beharko dute honakoekin:

1. ibilgailu mota (homologazio- eta eraikuntza-irizpide bera)
2. ardatz eta ardatz-lerro mota
3. Tarte berean dauden ardatz-lerroen arteko distantziak, ondorio horietarako, honakoak aintzat hartuta:
 - a. 1,00 m-ra arte ($d < 1$)
 - b. 1,00 m edo gehiago eta 1,30 m-ra artekoa ($1 \leq d < 1,30$)
 - c. 1,30 m edo gehiago eta 1,80 m-ra artekoa ($1,30 \leq d < 1,80$)
 - d. 1,80 edo gehiago ($1,80 \leq d$)
4. Gurpil kopurua eta mota
5. Hurrengo modulu ibiltarira akoplatzeko era.

Ardatz eragileari edo eragileei baimendutako gutxieneko kargako masa multzoaren karga osoaren masaren % 25 izango da, salbu eta interesdunak borondatez multzo euromodularren zirkulazioari buruzko ebaluazioko azterketa tekniko batean parte hartzea onartzen badu. Kasu horretan, % 25 baino ehuneko txikiago batekin zirkulatzeko baimena emango zaio. Nolanahi ere, % 8ko aldapetan mugimendua hasteko, 11,5 T-ko motor-ardatzaren gainean masa bat ardatzeko bermatu behar du.

Euromodularrek gai izan behar dute 360°-ko ibilbide zirkular oso bat egiteko, bi aldeetara, bi zirkulu zentrokidek zedarritutako eremu batean —bi zirkulu horien kanpoaldeko eta barrualdeko erradioak 12,50 eta 5,30 metrokoak izango dira, hurrenez hurren—, ibilgailuaren kanpoaldeko muturreko puntuak zirkuluen zirkunferentzietatik at proiektatu gabe.

Interesdunak borondatez onartzen badu multzo euromodularreko zirkulazioari buruzko ebaluazioko azterketa tekniko batean parte hartzea, kanpoaldeko eta barrualdeko erradio horien balioa handitzeko aukera emango zaio, hark berak adierazitakora arte. Egoera hori bideko titularrari jakinaraziko zaio, eta hark kontuan hartu beharko du hori eskatutako ibilbideari buruzko txosten loteslea egitean.



- Hona hemen 25,25 metroko luzerako konfigurazio horren adibide batzuk:

7 ardatzekoak:

"2 ardatz-lerroko atoi-kamioia" + "3 ardatz-lerroko erdi-atoia" [5 ardatz-lerroko ibilgailu artikulatua} + "2 ardatz-lerroko atoa"

8 ardatzekoak:

"3 ardatz-lerroko ibilgailu zurruna" + "5 ardatz-lerroko atoa"

"2 ardatz-lerroko atoi-kamioia" + "3 ardatz-lerroko erdi-atoia" [5 ardatz-lerroko ibilgailu artikulatua} + "3 ardatz-lerroko atoa"

9 ardatzekoak:

"3 ardatzeko ibilgailu zurruna" + "6 ardatzeko atoa"

11 ardatzekoak:

"6 ardatzeko ibilgailu artikulatua" + "5 ardatzeko atoa"



III. ERANSKINA. Bide Segurtasuneko Ebaluazioko Azterketetan parte-hartzea

Ardatz eragileen gaineko kargako masa %25etik beherakoa duten multzo euromodularren zirkulazioa buruzkoa edota multzoaren maniobragarritasuna buruzkoa bide-segurtasunaren ebaluaziorako azterketa batean borondatez parte hartu nahi duten pertsonak Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuko dute, azterketa egiteko orduan; eta honako hauek egin beharko dituzte:

- Erabilitako ibilgailu motordunei, atoei eta erdi-atoiei buruz behar den informazio tekniko guztia eman.
- Jarraitutako ibilbideei, bidaia-maiztasunari eta multzoen mugikortasunaren inguruko gainerako datuei buruzko informazioa eman.
- Takografoen datuetarako sarbidea erraztu.
- Ibilgailuetan datuak gordetzeko gailu bat instalatzea erraztu.
- Trafiko Zuzendaritzaren eskura jarri garraioan erabilitako multzoak, proba jakinak egiteko.

Azterketak egiteko bildutako informazio guztia era anonimoan eta xede zientifikoekin erabiliko da. Ezin dira zehapen-prozeduretarako erabili, inola ere.

Berriazko datuak jasotzeko gailuen instalazioa ibilgailuen segurtasuna errespetatuz egingo da, eta Trafiko Zuzendaritzak izango du hori egiteko ardura. Horrek ez dio aparteko kostu ekonomikorik ekarriko interesdunari.

IV. eranskina.- Multzoaren Ziurtagiri Teknikoa

Multzoaren Ziurtagiri Teknikoaren indarraldia mugagabea izango da, inplikaturako edozein ibilgailutan dagozkien txostenetan behar bezala jakinarazitako aldaketarik edo berrikuntzarik egin ez bada.

Ziurtagiri horiek bakarrik onartuko dira eskumena duen teknikari batek prestatu, sinatu eta bere gain hartu baditu, hau da, honako agenteek egin badute:

- Ibilgailu-fabrikatzaileek edo bigarren faseko fabrikatzaileek, multzoko ibilgailu guztiengatik egin badezakete, eta ez partzialki.
- Bulego teknikoek edo administrazioekin kolaboratzen duten zerbitzu teknikoek edo ingeniartzako kontsultore espezializatuek.

Dokumentu horiek jatorrizko formatuan aurkeztu beharko dira, honako arlo hauek beteta:

1. Multzoaren luzera, eta eskalan egindako krokisean, ziurtagiria jasotzeko proposatu ziren matrikulen ordena mantenduta, hauek guztiak gehituta: multzoko elementuetako eta aintzat hartutako grabitate-zentroetako, ibilgailuetako eta kargetako beharrezko kuota guztiak, bakarrik luzerari dagokionez.
2. MGM edo multzoaren gehieneko masa kargako egoerarik txarrean, ibilgailu bakoitzeko arrasteko eta kargaketako prestaziorik murriztaileenak aintzat hartuta, eta horietako batek ere ez, ez eta multzoak ere, ezin dute Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko IX. eranskinean eta abenduaren 18ko PRE/2788/2015 Aginduan aurreikusitakoa gainditu.
3. Ardatz eragileen trakzio-gaitasunaren balorazioa, baita egokitutako indarrarena ere, aldapa edo malden taula baten arabera. MGMa egokitu behar da eskakizun-egoera desberdin horietan multzoak bete dezakeenera, teknikoki eta 2.1.7 puntuarekin eta IEOaren IX. eranskineko 1. taularekin bat eginez. Azken aipamen hori ez da aintzat hartuko bide-segurtasunari buruzko ebaluazio-azterketetan borondatez parte hartzean.
4. Ondorioz, eskalan egindako krokisean ere ardatz bakoitzean justifikatuko dira ibilgailuak abian daukan masa ardatzeko (gutxi gorabehera haren tara), garraiatu beharreko masatik eratorritako masa ardatzeko eta ardatzeko ateratzen den



kopurua. Eraitza osoak adierazi behar dira erregelamenduak onartzen dituenekin alderatuta, ardatz-tipologiaren arabera eta aukera ezberdinetarako.

5. Bide-saretik zirkulatu ahal izateko erregelamenduak ezarritako maniobragarritasuna. Araudiak ezarritakoak baino murriztapen txikiagoak izatekotan (barnealdeko erradioak eta kanpoaldeko giro-erradioak), berariaz jaso behar dira murriztapen horiek, ohiko gidatze-eszenatokiei dagokienez. Horrekin batera, kurbadura-azterketa bat joan beharko da, oinplanoan eta altxaeran. Bertan bideragarritasuna justifikatu beharko da eta bide-segurtasuneko ebaluazio-azterketaren parte izango da.

6.- Ibilgailu motordunaren gutxieneko potentzia egiaztatzea. Gutxienez, multzoak gehienezko kargan daukan masako tona bakoitzeko 5KW-ko potentzia izan behar du, 2012ko abenduaren 12ko Batzordearen 1230/2012 zenbakiko Erregelamenduan (EB) ezarritakoarekin bat.

Edonola ere, bidaian zehar EMSak % 5 baino gehiagoko aldapak dituzten eta kilometro bat baino luzeagoak diren tarteetatik zirkulatu behar badu, eta multzoaren masa guztira 42 tonatik gorakoa izango bada, ibilgailu motordunari gutxienez tonako 6 kWko potentzia izatea eskatuko zaio.

Azkenik, ziurtagiriak baimen-eskaerako erantzukizunpeko adierazpenean jasotako baldintza teknikoak aipatu beharko ditu, ibilgailu guztietarako eta horien funtzionaltasunetarako, eta prestazioak eta sartutako hobekuntzak laburki azaldu beharko ditu.



V. eranskina.- Ibilbideak

Interesdunak errepide-tarteak identifikatu beharko ditu, eta zehazki adierazi beharko du errepidea, tartearen hasiera eta amaiera, eta, hala balegokio, zein lurraldetatik igaro behar den.

Galtzada bakarreko eta bi norabideko errepide bat denean, zergatik erabili behar den justifikatu beharko da, eta bidai baten edo haren zati baten hasiera edo amaiera puntu zehatza adierazi beharko da.

Bide-titularrak aldeko txosten orokorra eman badu, EAEn euromodularren zirkulaziorako administrazio titularrak autobideei, autobiei eta "zirkulazio-norabide bakoitzerako galtzada berezituak" dituzten errepide arruntei buruzko aldeko txosten orokortua eman balu, txostena eskatu beharko da bakarrik galtzada bakarra eta zirkulazio-norabide bi dituen bide batetik igarotzen diren ibilbidearen zatiei dagokienez.

EMSen zirkulaziorako aldez aurreko txosten orokortuek babesten dituzten bideei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren webgunean topatu ahal izango da (prest dagoenean), www.trafikoa.eus. Horiek "konfigurazio euromodularrentzako ibilbide-sarea" (KEIS) izenekoa osatuko dute .

VI. eranskina.- Zirkulatzeko baldintzak

1.- Seinaleztapena

Multzoak bi V-2 argi-seinale izan beharko ditu, multzoaren atzealdeko goiko muturretan kokatuko direnak. Horrez gain, honako seinale hauek ere izan beharko ditu: ibilgailu luzeko V-6 seinalea, ibilgailuaren ingerada seinaleztatzen V-23 bereizgarria eta IEOak salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuetarako nahitaezkoztat jo dituen gainerako seinaleztapen-gailuak.

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarra duten bide arruntetan zehar, argi laburrak edo egunez gidatzeko argiak piztuta eramango dituzte.

2.- Meteorologia kaltegarria eta ikuspen urria

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarra duten errepide arruntetatik zirkulatzeari utzi eta plataformatik irten beharko dira egoera hauetan: ibilbidean zirkulatzeari arriskutsu bihurtzen duten fenomeno meteorologiko kaltegarriak daudenean; edo, edonola ere, gutxienez 150 metroko ikuspena ez dagoenean, ez aurrera ez atzera; edo EMS multzoak karga badarama, Euskalmetek haizea dela eta maila gorriko arrisku-abisu meteorologikoa aktibatu duenean; eta kargarik ez badarama, Euskalmetek haizea dela eta maila laranja-arrisku-abisu meteorologikoa aktibatu duenean.

Zirkulatzeko baldintzak okerrak direnean (elurra, izotza, laino trinko edo haize bortitza) ezin izango dute zirkulatu, eta aurreikuspen meteorologikoak hobera egin arte (Euskalmeten eta babes zibileko abisuen arabera) egoki eta segurtasunez aparkatu beharko dute.

3.- Abiadura

ibilgailu artikulatuentzako gehieneko abiadura RGCaK ezarritakoa izango da, bide motaren arabera.

Hala ere, RGCKo 46. artikuluan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean, aurreko paragrafoan multzo mota horietarako ezarritako gehieneko abiadura 10 km/h-an txikituko da bide motaren arabera.

4.- Zirkulatzeko murrizketak



Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuetarako orokorrean urtero ezartzen dituen zirkulazio-baimen berezien murriztapenak errespetatuko dira.

5.- Aurreratzea

Zirkulazio-norabide bietarako galtzada bakarreko bideetatik zirkulatzen dutenean, 45 km/h-tik gorako abiaduran doazenei ezingo diete aurreratu.

6.- Bidaia jakinaraztea

Aldez aurretik jakinarazi beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari bidaia guztiak. Helbide elektronikoz egingo da eta, horretarako, www.trafikoa.eus webgunean eskuragarri dagoen inprimakia erabiliko da. Bertan daukaten baimenaren zenbakia, data eta hasierako eta amaierako orduak adierazi behar dituzte, baita jarraitutako ibilbidea eta haren luzera ere. Hala balegokio, ibilbide bereiziko jakinarazpena egingo da.

7.- Geo-kokapena

Trafiko Zuzendaritzak zerbitzua duenean eta baimena hala adierazten duenean, konfigurazio euromodularreko multzoek beren geo-kokalekuko datuak bidaliko dituzte telematikoki.

8.- Karga

Garraiatu beharreko karga kargatu beharko da zirkulazioan zehar mugituko ez den forma batean, multzoen egonkortasuna arriskuan ez jartzeko. Baimenak ez du babestuko kargatze egoki hori bermatzen ez duen salgaien garraioa.

EMS multzoek salgai arriskutsuak garraiatzeko PRE/2788/2015 Aginduak ezarritako murriztapenak bakarrik eragingo die erregelamenduko arrisku-seinaleztapenerako panel laranja edo xafra-etiketak eramanez garraiatu behar diren salgaiei, Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioari (ADR) jarraikiz. Nolanahi ere, horiek garraiatzeko Akordio honek ezarri dituen baldintzak eta murriztapenak errespetatu behar dira.

VII. eranskina.- Prozedura

1.- Bulego izapidetzailea

- Baimen bereziak izapidetzeko eskumena baimen-eskabideko ibilbidea hasten den edo igarotzen den lurraldeko Lurralde Bulegoari dagokio.
- Eskabideak esleitzea.
 - ✓ Eskabideak bulego eskudunari esleitzeko, Tramitaguneko espediente-kodea erabiliko da eta EMS/LB/UU/BB formatua izango du:
 - EMS: Euro-modular identifikatzailea.
 - LB: Bulego izapidetzailearen lurralde-identifikatzailea.
 - UU: eskabidea aurkeztu den urteko azken bi digituak.
 - BB: Emandako berritzea zenbatgarrena den. Lehen aldiz eman bada, horren balioa zero izango da (00).

2.- Tasa sortzea.

Ordainketa-gutuna aterako da eskabidea, Tramitaguneren bidez, modu automatikoan aurkeztu ondoren eta izapidetu aurretik.

- Izapidetze elektronikoa: Tramitagunek sortu eta Nire Karpetara bidaliko du.
- Aurrez aurreko izapidetzean: Tramitagunek sortuko du eta bulego izapidetzaileak eskabidean adierazitako helbide elektronikora igorriko du.

Tasa ordaindu dela ofizioz, edo justifikantea aurkeztu delako, egiaztatu ondoren, izapidetzen jarraituko da.

3.- Datuak egiaztatzea.

- Baimena emateko ezarrita dauden betekizun guztiak betetzen diren begiratuko da.
- Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko da.
- Erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko dira eta eskabideko matrikulak Ibilgailuen Erregistroan alta emanda dauden begiratuko da.



- Zirkulazioaren bi noranzko dituzten galtzada bakarreko errepideak eskatzen badira, egiaztatuko da ea hori den eskabidean adierazitako ibilbide-hasierako eta –amaierako lekuetara sartzeko aukera bideragarri bakarra.

4.- Hutsak zuzentzeko izapidea.

Hutsen bat dagoela ikusten bada (datuetan eta eskabideko elementuetan, aurkeztutako dokumentazioan; proposatutako ibilbidearen ordezko ibilbide egoki bat dagoela, baldin eta ibilbideak erabili behar duen bide-motarako lege ezarritako betekizunak betetzen ez baditu), interesdunari errekerimendua egingo zaio antzemandako akatsak lege ezarritako epean zuzen ditzan.

Hutsak zuzentzeko errekerimenduari erantzun ondoren, izapidetzen jarraituko da. Bestela, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

5.- Txosten eskaera.

Eskatutako ibilbidea, osoa edo horren zati bat, bideetako titularrek konfigurazio euro-modularreko taldeetarako egindako txosten orokorretan sartuta ez badago, inplikaturik dauden bideen administrazio titular guztiei txostena eskatuko zaie. Hortaz, bidearen administrazio titularrari ez zaio banan-banako txostena eskatu behar, baldin eta bide-tarte horiek administrazio horrek dagoeneko eman duen txosten orokor batean sartuta badaude.

Behin txostena eskatuta, ez da onartuko eskatutako ibilbidearen datu bat bera ere aldatzea.

6.- Ebazpena ematea:

- Baimena.

Izapidea amaituta, eta txostenak (orokorrak edo banan-banakoak) aldekoak badira, zirkulazio baimen berezia emango da.

- Ukapena.

Baimena ukatuko da, baldin eta:

- d. Baimena emateko ezarrita dauden betekizunetako bat betetzen ez bada.



- e. Mugimendu-ibilgailuetako bat ere gai ez bada erabilera publikoko bideetatik zirkulatzeko edo eskatutako konfigurazioa osatzeko adina ez-mugimendu ibilgailu ez badaude.
 - f. Eskatutako ibilbide osoari edo horren zati bati buruzko aurkako txostena badago.
- Eskabidean atzera egiten duela deklaratzeari.

Interesdunak datuak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzuten ez badio edo behar bezala erantzuten ez badio, interesdunak atzera egin duela deklaratuko da.

7.- Jakinarazpenak

Tramitagunek beti Nire Karpeta igozko dituzten interesdunari jakinarazi beharreko izapideak, nahiz eta interesdunak paper bidezko izapideak aukeratu (39/2015 Legearen 41.6 art.).

Aurrez aurreko tramitazioan, gainera, posta bidezko jakinarazpenak Tramitaguneraren kasuan kasuko moduluaren bidez egingo dira. Tasari dagokion ordainketa-gutuna, ordea, posta elektronikoaren bidez igozko da.

8.- Baimenak aldatzea eta berritzea.

Interesdunak eskatuta eman den baimena ezin izango da aldatu.

Dagoeneko emanda dagoen baimen bat berritzeko, instrukzio honetan ezarritakoa beteko da eta berrituko den baimeneko datuak ezin izango dira aldatu. Eskabidean, interesdunak adierazi behar du zein baimen berritu nahi duen.

9.- Prozedura koordinatzea.

Trafiko Zuzendaritzako zerbitzu zentraleri dagokie konfigurazio euro-modularreko ibilgailu-taldeetarako baimen bereziak emateko prozedura zein horiekin lotutako gainerako izapideak koordinatzea. Horretarako, eginkizun hauek burutu behar ditu:

- Instrukzio hau eta bere eranskinak eguneratu eta aldatu, trafikoaren kudeaketarekin edo baimenak emateko prozedurarekin lotutako egoera berrietara egokitzeko
- Ibilbide-sareak sortu eta mantendu.

- Zerbitzu informatikoekin lankidetzan aritu.



VIII. eranskina. Eskaera eta dokumentazioa

3. Eskabidea:

Aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere, elektronikoa edo presentziala, erabili behar den eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan dago, eta hauen bidez sartzen da: www.trafikoa.eus edo <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>.

Aurrez aurre egin nahi bada, eskabidea beteta eta dokumentazioa Herritarrei Arreta Emateko Zuzenean Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

4. Eskabidearekin batera hainbat dokumentu aurkeztu behar dira.

Administrazioarekiko harremanetarako aukeratutako kanala edozein dela ere, aurkeztu beharreko dokumentazioa hau da:

- ✓ "Taldearen ziurtagiri teknikoa", salbu eta emandako baimena berritzeko eskatzen bada. Horrelakoetan, berritu nahi den espedientea zein den adierazi behar da, besterik ez.

Izapidetzeko kanal presentziala aukeratu badu, beste hauek ere aurkeztu behar ditu:

- ✓ Interesdunaren identifikazioa.
- ✓ Ordezkaritzaren egiaztatzea.